

Euskadiko Autonomia Erkidegoan, adimen edo garapen urritasuna duten pertsonen zerbitzuak eskaintzen dizkieten familien elkarrean ordezkatzeko ditugu. Gure xedea, alde batetik, talde horri eta familiei ematen zaizkien laguntzak eta aukerak hobetzea da eta, bestetik, gizarte inklusiboagoa, zuzenagoa eta solidarioagoa lortzea, pertsona bakoitzak bere bizitza proiektua aurrera eraman ahal dezan.

Une honetan, 13 elkarrean, adimen edo garapen urritasuna duten 10.750 pertsonak, 10.275 familiak, 2.050 profesionalak eta 1.272 boluntariok osatzen dugu Federazioa. Hori dela eta, adimen urritasunaren alorreko Euskadiko erakunde egitura garrantzitsua gara.

Federazioko kide diren erakundeak:

- **GIPUZKOA:** Atzegi, Atzegi tutela Fundazioa, Gautena, Goyeneche Fundazioa, Aspace Gipuzkoa eta Uliazpi.
- **BIZKAIA:** Gorabide, Uribe Kosta, Apnabi, Futubide eta Aspace Bizkaia
- **ÁRABA:** Apdema eta Usoa tutela Fundazioa.

Zerbitzu eta Programa sarea:

- Eguneko 57 Arreta Zentro
- 5 Zentro Okupazional
- Hezkuntza Bereziko 5 ikastetxe eta kontzertaturiko 38 Hezkuntza unitate
- Arreta Goiztiarreko 12 Unitate
- 83 Egoitza Unitate
- 45 Aisia gune
- Enplegurako 2 Zentro Berezi
- 3 Tutela Zerbitzu
- Kontzertaturiko 2 Zerbitzu Soziosanitario
- 4 Autokudeatzaile programa
- Familientzako zenbait orientazio, prestakuntza eta laguntza programa.

Federazioaren beraren lan eremuei dagokienez, zenbait sail estrategikotan sartzen dira: eragin soziala eta politikoa; komunikazioa eta gizarte sentsibilizazioa; interes taldeei zuzendutako prestakuntza; adimen urritasuna duten pertsonen enpoderamendua, arreta berezia eskainiz irisgarritasun kognitiboaren sustapenari; hezkuntza inklusibo ereduaren sustapena; I+G+b; eta Arreta eta Antolakuntza Eredu berrien garapena. Horiek guztiak, eskubideen alorrean aurrera egiteko eta pertsona guztien erabateko inklusioa posible izango den gizarte eraikitze xedez.